



Lemoako
Haur eta Gazteen
XIV. Ipuin Lehiaketa
2014

Antolatzailea

LEMOAKO UDAL LIBURUTEGIA

Babeslea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

II. TALDEKO 1.SARIA

June Bate

MAITAGARRI, MIXI, BIZKOR ETA LAPURRAK

MAITAGARRI, MIXI, BIZKOR ETA LAPURRAK

MAITAGARRI, MIXI, BIZKOR ETA LAPURRAK

Egun batean, Colombian Mixi, Bizkor eta Maitagarri liburutegi batean oso pozik zeuden Bizkor izan ezik. Bizkor txakur beltza eta handia zen, ausarta eta eskuzabala. Mixi katu marroizka zen eta borobil beltz bat begian, arina eta azkarra zen. Maitagarri kanario horia eta genio gehien zuena zen. Liburutegia oso zaharra zen eta Coloniako ospetsuena.

Bizkor ez zegoen pozik bere gustuko ipuinak ez zituelako topatzen.

- Seguru nik topatzen dudala - esan zuen Mixik.

Baina Mixik ez zituen topatzen.

- Ez dago liburu inportanteena - Esan zuen Mixik.

- Nork hartu du liburu inportantena? - esan zuen Maitagarriak.

- Ez dakit - esan zuen Bizkorrek.

- Entzun duzue telebistan lapurrak egon direla? - esan zuen Mixik. Bat-batean argiak amatatu ziren eta ateak zabaldu ziren.

- Oso bildurtuta nago – esan zuen bajuz Mixik.

Orduan Bizkor aulki gainera igo zen eta esan zuen:

- Nortzuk zarete?

- Niri ez zait inporta eta ez daukat bildurrik. Maitagarria naiz eta genio txarra dut.

- Trankil egon – erantzun zuten lapurrek.

- Guri irakurtzea asko gustatzen zaigu. Nire izena Beltzi da eta nire laguna Pupas da.

- Liburuak ez dira lapurtzen, hartu ahal dituzue liburutegitik lapurtu barik –esan zuen Bizkorrek

- Baina ez daukagu dirurik - esan zuen Pupasek.

Orduan Bizkor, Maitagarri eta Mixi azaldu zioten liburutegian ez dela dirurik behar.

Eta egun horretatik aurrera ostiral guztietan liburutegian gelditu ziren liburuak irakurtzeko eta bere istoriak kontatzeko.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila Lemoako plazan.

II. TALDEKO 2.SARIA

Eider Murillo

MAITAGARRI ETA ANDREA

MAITAGARRI ETA ANDREA

MAITAGARRI ETA ANDREA

Bazen behin familia alai bat. Andrea eta Nahia.

Andrea 9 urteko neska bat zen, neska polita zen, argala, ile marroia eta lisoa zeukan, sudur bixia eta begi berde ilunak zituen. Oso neska alaia, zintzoa eta lagun ona zen. Andrearen amak Nahia zuen ize na, begi urdinak zituen, sudur ertaina eta neska guapa eta oso alaia zen.

Negua zen eta Olentzero etorriko zen. Andrea gezurretako maitagarria eskatu zuen. Oso pozik zegoen eta egun guztietan ordenagailuetan gezurretako maitagarriak ikusten egoten zen. Gava iritsi zen eta lotara joan zen. Maitagarriarekin amets egin zuen. Eta esnatu zenean poz-pozik altxatu zen eta bere amari muxu pilo bat eman zizkion.

- Pozik zaude? – Galdetu zion amak.
- Ez dakizu? Gaur Olentzero etorriko da.
- Aaaa! – esan zuen amak.

Jantzi eta amamaren ebxera joan ziren. Han lo egin zuen eta Andrea esnatu zenean:

- Aaaa opariak daude!!!! – Oihukatu zuen Andreak.
- Zer gertatzen da?- Galdetu zion amak ohetik.
- Opariak daudela! – Erantzun zuen alai Andreak.

Ondoren gosaltzera joan ziren eta Andreak maitagarriarekin jolasten zegoen. Gosaldu ostean Andrea parkera joan zen. Eta han maitagarriak galdetu zion:

- Zenbat urte dituzu?
- Hitz egiten duzula! - Harrituta esan zuen Andreak.
- Klaro, ni neska naiz eta ez naiz gezurretakoa, bitzta daukat – Esan zion maitagarriak.
- Nik 9 urte ditut eta Andrea dut izena. Zu ez zarela gezurretakoa bitzta daukazula gure sekretua izan go da. Bale! Bestela... nire ama konturatzen bada, mendira eramango zaitu zuri bakarrik.
- Bale- erantzun zuen maitagarriak.

II. TALDEKO 2.SARIA

Eider Murillo

MAITAGARRI ETA ANDREA

MAITAGARRI ETA ANDREA

MAITAGARRI ETA ANDREA

Eguerdia iritsi zen eta ama eta Andrea euren etxera joan ziren. Maitagarria estatuarena egiten ari zen ama ez konturatzeko. Etxera heldu ziren, Andrea maitagarriarekin Andrearen logelara joan zen.

- Hauxe nire logela da- esan zion Andreak maitagarriari.
- Ze polita! – Eсан zuen maitagarriak.

Andreak maitagarriari logelan geratu behar zela esan zion. Eta maitagarriak hori egin zuen egun guztietan. Baina egunak joan eta egunak etorri maitagarria hazi egin zen eta logelan ez zen sartzen. Orduan amari kontatzea erabaki zuten eta hori egin zuten.

Eguerdia iritsi zen eta ama eta Andrea euren etxera joan ziren. Maitagarria estatuarena egiten ari zen ama ez konturatzeko. Etxera heldu ziren, Andrea maitagarriarekin Andrearen logelara joan zen.

- Hauxe nire logela da- esan zion Andreak maitagarriari.
- Ze polita! – Eсан zuen maitagarriak.

Andreak maitagarriari logelan geratu behar zela esan zion. Eta maitagarriak hori egin zuen egun guztietan. Baina egunak joan eta egunak etorri maitagarria hazi egin zen eta logelan ez zen sartzen. Orduan amari kontatzea erabaki zuten eta hori egin zuten.

- Ama, maitagarria benetakoa da, bizitza dauka - esan zuen Andreak.
- Benetakoa dela! Ba... oso ondo, primeran – Eсан zuen amak.

Maitagarria etxe guztitik ibili zen jolasten eta poz-pezik bizi izan zen betiko.

II.TALDEKO 3.SARIA
Ameli Ozerin

GARAZIREN EGUN TXARRA

GARAZIREN EGUN TXARRA

GARAZIREN EGUN TXARRA



B

azen-behin, Igorren, Garazi izeneko neska bat. Garazi baxua, argala, jatorra, alai baina apur bat bihurria zen.

Egun batean, goizean, gelara sartzean, bere lagun bati susto bat eman zion.

Orduan bere laguna haserretu zen eta bere botilako ura Garaziri gainean bota zion. Lurra busti zen urarekin, Garazi lurrera jausi egin zen eta hanka apurtu zuen. Ospitalera joan zen eta igeltsua jarri zioten.

Hurrengo egunean, gelara itzuli zenean bere lagunak barkamena eskatu zion Garaziri. Garazik barkatu zion baina kondizio batekin:

ETA HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN ETA IRTEN DADILA IGORREKO PLAZAN.

III.TALDEKO 1.SARIA
Sara Ojanguren

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

Manex eta Maitane izeneko bi neska-mutil oso abenturazaleak ziren. Maitanek ile leun-leuna, begi urdiak eta azal zuria zituen. Manex, berriz, begi berde distiratsukoa eta ile kizkurrekoa zen. Lagun handiak ziren eta bihotz onekoak gainera. Alaiak ziren eta oso trebeak Sudokuetan.

Egun batean, eliza ondoko jolastokian zeuden aspertuta eta halako batean Manexi ideia bat bururatu zitzaion:

Maitane, badakit zer egin dezakegun asper-asper eginda ez jarraitzeko!

Zer?- galdetu zuen Maitanek- Bota buruan duzuna, txotxolo hori!

Ba..... Zure aitak ez du garajea bere asmakizun xelebre hori?- esan zuen Manexek.

Espazio-ontzia?- erantzun zuen Maitanek.

Bai, hori da! Zure aitaren espazio-ontzia har dezakegu eta Saturno aldera joan. Saturno 5. satelitera, hain zuen ere. Zer deritzozu?

Nigatik perfektu! Baina kontuan izan nire aitak oraindik ez duela bere asmakizuna probatu.... beraz ez dakit funtzionatu duen...

Ikusiko dugu... Goazen, azkar!

III.TALDEKO 1.SARIA
Sara Ojanguren

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

Maitaneren garajera joan ziren, espazio-ontzian sartu, jantzi bereziak jarri, makina martxan jarri eta espazio aldera abiatu ziren Manex eta Maitane. Bidaia luzea izan zen, baina azkenean Saturnoren 5. satelitera heldu ziren. Heldu bezain laster bertan oxigenoa zegoela ikusi zuten eta horretaz gain ura, janaria eta jendea ere bai.

Manex eta Maitane guztiz liluraturik zeuden eta satelitean egun batzuk igarotzea erabaki zuten. Bertako biztanleek arraro begiratzen zuten Manex eta Maitane. Itxuraz haien modukoak ziren baina janzkera ezberdina zuten. Bat-batean, gizon bat hurbildu zitzaien:

Kaixo, nondik zatozte?

Gu, Euskal Herritik gatoz. Ba al dakizue non dagoen?

Bai, bai.... Are gehiago. Ni ere euskalduna naiz, Fermin dut izena. Orain dela urte asko hona etorri nintzen eta hemengo bizimodua gustatu zitzaidan eta horregatik bizi naiz hemen. Baina nola etorri zarete? Hona heltzeko denbora luzea behar da eta garraio berezia.

Gu bisitan etorri gara. Maitaneren aitak espazio-ontzi berri bat asmatu du eta hori erabili dugu.

Nahi baduzue nire etxean gelditu ahal zarete. Ondo al dago?

Primeran!- erantzun zuten Manexek eta Maitanek aho batez.

III.TALDEKO 1.SARIA
Sara Ojanguren

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

MANEX ETA MAITANEREN ESPAZIOKO ABENTURA

Bi egun egon ziren. Satelitea bisitatu zuten, jolastu ere egin zuten, bertako janaria dastatu, jendearekin egon.... Opor itzelak izan ziren, baina Euskal Herrira itzultzeko garaia zen eta Manex eta Maitane Fermin agurtu eta gero bidaiari hasiera eman zioten.

Azkenean Manex eta Maitane etxera itzuli ziren. Haien gurasoak oso kezkatuta zeuden eta biak ikustean lasaitu ziren, baina gero galdezka egon ziren denbora luzean: non egon zarete? Zergatik egin duzue hori? Norekin ibili zarete? Zertan?...

Manexek eta Maitanek egia osoa kontatu zuten, baina gurasoek ez zuten ezer sinestu. Maitaneren aitaren ustetan ezinezkoa zen bere espazio-ontziak funtzionatzea, bere aisialdian egin zuen baina inolako itxaropenik gabe.

Egunak pasatu ziren eta Manexek eta Maitanek haien ohiko bizimodua egin zuten. Zigor handia izan zuten ere.

Gabon gauean familia biak batera egon ziren Gabonak ospatzen eta bat-batean norbaitek atea jo zuen. Nor izango ote zen? Fermin eta bere senideak!


Manex eta Maitane korrikan joan ziren haiengana besarkada bat ematera eta gure lagunen gurasoak aho bete hortz geratu ziren. Hori bai sorpresa!!!!

III.TALDEKO 2.SARIA Iraultza Azurmendi

BENAT BIHURRIA

BENAT BIHURRIA

BENAT BIHURRIA



Bazen behin, orain dela bi urte, Artaunen, Beñat izeneko mutiko bihurri bat. Beñatek bihurrikeria asko egiten zituen, baina azkenaldian bihurrikeria hau zuen pendiente: Igurio etxera joan eta petardo batekin basahuntzak beldurtzea. Normalean bihurrikeria handiagoak egiten zituen (katuak erre, txakurrei belarriak moztu...), baina bihurrikeria lasai bat egin nahi zuen.

Hurrengo egunean, petardo bat eta metxero bat hartu eta Igurio etxerantz bidea hartu zuen zortziak aldera. Heldu zenerako zortzi eta erdiak ziren, eta iluntzen hasia zegoen. Broma egin zuen eta segituan ezkutatu zen. Igurio etxekoa irten zen eta ez zuen inor ikusi, orduan, Beñat izan zela suposatuz zuen. Beñat konturatu zen berandu zela eta bidean zegoen kobazulo batean pasatuko zuen gaua. Kobazulo hartan lehen, adineko pertsona bat bizi izan zen eta horren ondorioz, koba sorginduta zegoela esaten zuten. Sartu zen kobara berak eginiko tortxa bat eskuetan zeramala eta lekutxo batean geratu zen bertan gaua pasatzeko asmoz. Su txikitxo bat egin zuen eta koba ezagutzera joan zen. Koba gizakiak egindakoa zen, harrizko hormak zituen, gelak zeuden... Harpea ezagutzera abiatu zen eta gela batean sartu zen. Hor armairu bat ikusi zuen eta armairurantz abiatu zen janaria aurkituko zuen esperantzaz eta oso beldurtuta ere. Harrantz abiatutakoan, bat-batean zulo handi batera jausi zen eta indarrez oihukatu zuen:

-Lagundu!! Lagundu!!

Baina alferrik izan zen. Zuloan zegoela, ikusi zuen norbait zebilela hortik. Halako batean zera esan zion:

-Beñat!- esan zuen espiritu ahots batekin.

III.TALDEKO 2.SARIA

Iraultza Azurmendi

BENAT BIHURRIA

BENAT BIHURRIA

BENAT BIHURRI

-Ez zera hemendik irtengo, ez baduzu zin egiten ez duzula bihurrikeria gehiago egingo. Zure esku dago erabakia, zuk aukeratu!

-Ez, ez eta ez!! Ez diot bihurrikeriak egiteri utziko, oso ondo pasatzen dut eta!

-Ados, ez zara hemendik irtengo.

-Hori zure ustea da, eta ni ez nago oso alde. Irtengo naiz, laguntzarekin edo laguntzarik gabe, baina irtengo naiz, badakit!!

Èspiritu hori joan zen eta Beñat irtetzeko ahaleginak egiten hasi zen. Praketako goma botoi batekin lotu zuen, gorantz bota eta mahai batean engantxatu zen eta zulotik irten zen. Sua zegoen lekura bueltatu zen, baina sua itzalita zegoen. Ostean, lo egiteko leku baten bila abiatu zen. Gero, gela batean sartu zen eta hori sukalde zahar bat zen. Ikusten zen txapan sua zegoela eta bat-batean sua zabaldu zen eta Beñat lurra bustita zegoela konturatu zen, orduan lurrean gasolina zegoela suposatu zuen. Segituan horren atzean zegoenaren bila abiatu zen. Gela baten sartu eta armairu bat ikusi zuen. Armairuko atea zabaldu, eta zera esan zuen:

-Bingo!!!

Èta bingo bat atera zuen armairutik. Beñatek pentsatu zuen ez zela denborarik galdu behar eta horren atzean zegoenaren bila abiatu zen. Gela batean sartu zen eta ahots bat entzun zuen. Horregatik gela arakutzen hasi zen. Ahotsa ohe azpitik zetorrela konturatu zen eta segituan ohe azpia arakatu zuen. Hor hitz egiten zuen andre bat korrikan pasatzen ikusi zuen. Beñat, bere atzetik irten zen abiada bizian eta esan zion:

-Geldi hor astakirten halakoa!!!!



III.TALDEKO 2.SARIA

Iraultza Azurmendi

BENAT BIHURRIA

BENAT BIHURRIA

BENAT BIHURRI

-Ez zara kapaza izango hori egiteko!- esan zuen Beñatek adoretzu.

Kobatik irten ziren eta andrea Igurio etxerantz zihoan. Etxe barrura sartu zen, baina Beñati ez zion sartzeko denborarik eman. Beñat konturatu zen leihoa zabalik zegoela eta hortik sartu zen. Gela batean zegoen eta pasabidera irten zen. Hor andre hura ikusi zuen baina eskopeta batekin amenazatu zuen zera esanez:

-Ez baduzu zin egiten ez diozula bihurrikeriak egiteari utziko, tiro batez hilko zaitut!- esan zion andreak.

-Hirura arte kontaktuko dut. Ez baduzu zin egiten bala bat sartuko zaizu burmuinera!!! Hiru, bi, bat ta...

-Itxaron, itxaron, itxaron!! Tratu bat: ez dut animalia bakar bat ere ez minduko, ez beldurtuko, baina pertsonei sustoak eman bai.

-Bale. Baina ez zauritu ezta minik egin pertsonei.

-Ez,ez. Zin egiten dut.

-Ba, ospa hemendik, azkar!

Beñat Artaunerantz abiatu zen eta bidean pentsatu zuen ez zela beharrezkoa bihurrikeriak egitea.

Artaunera heltzean lehenengo-lehenengo bere amari (aitari ez, hilda zegoelako) esan zion bihurrikeriak egiteari utzi ziola eta asko poztu zen, eta gero bere lagunei Artaun guztia konturatu arte. Horren ostean ohera joan zen martxa bizian, gau guztian ez baitzuen lorik egin! Eta horrelaxe bukatu zen Beñaten pasadizu hau.

III.TALDEKO 3.SARIA

Elene Gerrikabeitia

NEBA BERRIA

NEBA BERRIA

NEBA BERRIA

Bazen behin, herri batean Irati izeneko neska jator-jator bat. Ile marroia eta begiak ere marroiak zituen, oso baxua zen. Iratik txakur bat zuen, lur zeukan izena, txikia eta zuria zen, eta begian orban txiki bat zuen marroi kolorekoa. Lurri asko gustatzen zitzaion jolastea eta Iratiarekin egotea. Gau batean, lur eta Irati ohean zeudela, Iratiri mugikorra jausi zitzaion ohetik eta biak beldurtuta itzartu ziren, orduan, bere gurasoen logelara joan zen, baina han ez zegoen inor, ez ama ez aita. Egongelara joan ziren eta han ere ez zegoen inor.

Ondoren, sukalderako bidean zihoala, Iratik, entzun zuen nola amak esaten zion aitari haurdun zegoela eta haur txiki batekin lur joan egin behar zela.

"Nire ama haurdun dago, neba berri bat izango dut!!!. Baina lur joan egin beharko da".-pentsatu zuen Iratik tristerik.

Bat-batean, Iratik ideiaia bat eduki zuen, ideia hauxe zen; ama eta atari barbarik ez egitea lur etxera itzuli arte.

Gaua heldu zenean oheratu zen, eta Lurri hauxe esan zion:

-Gabon lur, bihar arte lasai egon, zu ez zara gure etxetik joango.

Hurrengo eguna heldu zen eta Iratik, planari ekin zion.

Lehenengo, haserre aurpegia jarri zien, gero, ura bota zion amari aurpegira eta sukaldera joan zen.

Amak hauxe esan zion Iratiri:

-Bainaaaa Irati, zer gertatzen zaizu?

Iratik ez zuen erantzuten eta amak berearekin segitu zuen.

-Benooo ba...haurdun nagoela esan nahi dizut laztana.-esan zuen azkenean amak.

Iratik ez zuen ahoa zabaldu. Geroxeago eskolara joan zen lurrekin, eta hauxe esan zion hainbeste maite zuen txakurrari:

-Lasai lur, nire planak ez duenez funtzionatu beste plan bat pentsatuko dut.

Eskolako ordua zen eta Irati bere lagunekin gelara joan zen. Eskola amaitu eta etxera heltzean, askaria jaten zuen bitartean Iratik beste plan bat pentsatu zuen. Iratik merienda jan eta plana prestatzera joan zen. Oraingoan Iratiren plana gose greba bat egitea zen.

III.TALDEKO 3.SARIA

Elene Gerrikabeitia

NEBA BERRIA

NEBA BERRIA

NEBA BERRIA

Etzerako lanak bukatu eta gero, play-stationera jolastera joan zen. Bederatziak ziren, afalorduaren sasoa, eta

Iratiaren amak oilaskoa patata frijituarekin prestatu zuen. Oilaskoa Iratiaren jakirik gustokoena zen eta usaindu zuenean oilaskoa, hauxe esan zuen:

-Ama oraintxe noa afaltzer!!!

Irati korrika joan zen sukaldara eta oilaskoa ti-ta batean jan zuen. Amak harriduta hauxe esan zion:

-Lasai jan lastana, denontzat dago oilaskoa eta.

Hamarrak ziren eta Irati logura zen, lur oso triste zegoen eta Irati ere bai. Iratik hauxe esan zion Lurri:

-Barkatu lur baina... oilaskoa oso goxo dago eta asko gustatzen zait.

Iratik, horrexegaitik, Lurri bere ohean lo egiten utzi zion eta beste plan bat pentsatzen hasi zenean lokartu zen.

Hurrengo egunean, zortziak zirenean Irati esnatu egin zen. Beste plan bat bururatu zitzaion. Gosaltzen bukatu zuzenean, larunbata zenez, ez zuen eskolara joan behar.

Iratik bere plan berria martxan jartzea pentsatu zuen, etxea hankaz gora uztea, horrela, amak Lurri etxean geratzen utziko zion.

Iratik futbol talde baten jolasten zuen eta egun horretan partidua zuen. Hasi zen partidua eta Irati oso ondo aritu zen jokatzeko.

Bat-batean, goooool oihukatu zuten beste taldekoek. Irati haserre jarri zen eta negarrez hasi zen.

Baina Iratik baloia hartu, eta korrika bizian portieriarantz joan zen eta hauxe oihukatu zuen:

-Ama oraintxe noa afaltzer!!!

Irati korrika joan zen sukaldara eta oilaskoa ti-ta batean jan zuen. Amak harriduta hauxe esan zion:

-Lasai jan lastana, denontzat dago oilaskoa eta.

Hamarrak ziren eta Irati logura zen, lur oso triste zegoen eta Irati ere bai. Iratik hauxe esan zion Lurri:

-Barkatu lur baina... oilaskoa oso goxo dago eta asko gustatzen zait.

Iratik, horrexegaitik, Lurri bere ohean lo egiten utzi zion eta beste plan bat pentsatzen hasi zenean lokartu zen.

III.TALDEKO 3.SARIA

Elene Gerrikabeitia

NEBA BERRIA

NEBA BERRIA

NEBA BERRIA

Hurrengo egunean, zortziak zirenean Irati esnatu egin zen. Beste plan bat bururatu zitzaion. Gosaltzen bukatu zuzenean, larunbata zenez, ez zuen eskolara joan behar.

Iratik bere plan berria martxan jartzea pentsatu zuen, etxea hankaz gora uztea, horrela, amak lurri etxean geratzen utziko zion.

Iratik futbol talde baten jolasten zuen eta egun horretan partidua zuen. Hasi zen partidua eta Irati oso ondo aritu zen jokatzeko.

Bat-batean, goooooool oihukatu zuten beste taldekoek. Irati haserre jarri zen eta negarrez hasi zen.

Baina Iratik baloia hartu, eta korrika bizian portieriarantz joan zen eta hauxe oihukatu zuen:

-GOOOOOOOOOOOOOOOOOOOO!!!!!!

Gol horri esker berdindu zuten partiduaren emaitza, baina oraindik beste zati bat gelditzen zen partidua bukatzeko. Bat-batean, beste goooooool bat oihukatu zuen Iratik. Hamar segundo gelditzen ziren eta azkenean Iratiren taldeak irabazi zuen, baina etxera joan eta berehala lo geratu zen oso nekatuta baitzegoen. Horregatik ez zuen izan denborarik plana betetzeko.

Éguerdiko ordu biak ziren eta Irati bazkaltzera joan zen. Lur oso triste zegoen eta ez zuen jateko gogorik. Jan ostean, Iratik barkamena eskatu zion lurri eta esan zion hurrengoan plana aurrera eramango zuela.

Amak hauxe esan zion Iratiri:

Amak hauxe esan zion Iratiri:

-Iratik eta lur bazkaltzera!!!

Éta Iratik hauxe erantzun zion:


-Banoaaaa...

Éta lurrek:

-Guaauuu...

Une horretan, aita heldu zen etxera bost egun Irlandan lanean eman ondoren. Étxera sartu zenean, Iratik oso pozik hauxe oihukatu zuen:

-Aita!!! Hau poza!!!



Aipamena ere eskolako LH 2. mailako ikasleei bere ipuinengatik. Zorionak!